

herria ekinez



2. zk gurekin ekinez!

editoriala

Asko hasi gara, hazi asko erein ditugu eta ari da pixkanaka fruitua etortzen. Gizartean oso finkatua dugu dagoeneko gure mezua, eta geroz eta pertsona gehiagok jarri dute konfiantza gudan.

Hala ere, gure lanak bere fruituak ematen dituen bitartean, inposaturiko gobernu bat izango dugu aurrean, herriak aukeratu ez duen gobernu bat, epaileek inposaturiko hauteskunde baten ondorio gisa. Aurrena bandera izan zen eta ondoren gobernu. Hemen daude jada, eta orain inoiz baino gehiago abertzaleon batura gauzatu behar dugu, baztertzaren gaituena baino batzen gaituena kontuan izanik. Izan ere batuta dagoen herria inoiz ez da gainditua izango.

**ASKO DUGU EGITEKO!
EUSKAL HERRIA DUGU
IRABAZTEKO!
GORA EUSKAL HERRI
INDEPENDIENTEA!**

etxebizitza

Euskal Herrian urte askotan zehar, gaur egun piska bat gutxiago, beti izan gara nahiko "mistiko". Hasiera batean gure kultura mitologiarekin zuzenean lotua zegoen nahiz eta gure kondaira eta kontakizunak sarritan nahastu izan diren kondaira pagano eta katolikoekin. Esaterako, hor ditugu neguko solstizioa = gabon zahar, udako solstizioa = San Joan, jentilarri = Sansonari, Salomon eta abar.

Hala ere, bada ezezagunagoa izan den pertsonaia bat; Etxeko. Hau, gure herrian horren garrantzitsuak ziren etxeen adierazle zen. Berau arduratzen baitzen etxearen garrantzia azpimarratzen; zainduz, maitatuz, landuz, eraikiz...

Urte dezente pasa dira hala ere baserriak luxu izatera pasa zirenetik eta hamar pertsonako familiak normalizatuak zeudenetik. Gaur egungo errealitatea oso bestelakoa da. Etxekoren lehengusu; Kaleko jaio da.

Geurea ez den, zilegia ez den Espainiar konstituzioan, argi asko agertzen da, etxebizitza eskubidea dela, ez luxua. Hots, ni bezalako milaka gazte, etxetik ezin irtenik topatzen dute beraien burua errenta mugagabeak eta etxeen prezioak medio. Lana egitea, ikastea, etxetik kanpo bizitzea... Artistak izan behar gero!

Badira honi aurre egiten diotenak, herentziak edo gurasoen dirua dela, zer esanik ez; bankuak. Hau da gazteen opioa, baina ez, ez da errealitatea neurtzeko erarik egokiena.

Gu, bakarrik izango bagina, kalean ginateteke, kalean utzi gaituzte.

Aitzitik, gaur egun Aladinoren lanpara bankuak dira askorentzat, eta sortea dutenak gaitzerdi! Berriako artikulo batek gai honen inguruan zera zioen "Etxebizitzaren prezioa. 30 urtera finantzaturako etxebizitza baten batez besteko prezioa %80 igotzen da topaketetan zabalduetako datuen arabera: 352.607 eurotik 634.692 eurora. %149 hazten da, berriz, 50 urtera finantzaturaz gero: 877.991,4 eurora, hain zuzen." Hau kontuan izanda ere, krisia dela eta, bankuek ere ez dute dirurik ematen. Zer egin orduan? Kale gorrian gelditu? Lanik ez, etxerik ez, dirurik ez... bizitzerik ez! Garraio "publikoa", unibertsitate "publikoa", "bekakak", "dirulaguntzak"... Polita dirudi guzti honek, oso polita gero, egia balitz. Ikastea, bizitzea, existitzea! Guztia

